# Gizarte-arloarekin konprometitutako ikerketa lanak pentsatzeko



| | | |
|---|---|---|
| Izenburua | Lanaren edukiari egokitzea eta aztertzen den arazoa eta/edo defendatzen den jarrera aipatzea. Izenburu iradokitzailea aurkitzea. | |
| Aurkibide xehea | Lanaren egitura islatzea. | |
| **Sarrera** | | |
| Gaia formulatu eta zedarritzea | Gaia behar bezala zehaztea, bai eta esparru kronologiko eta espaziala ere. | |
| Aukeratutako gaiaren justifikazioa  | Azaltzea zergatik aukeratu den gai hori, zergatik den garrantzitsua edo egokia gai hori gaur egun aztertzea (gai hori hautatzea eragin duten arrazoi pertsonalak sar daitezke).<br>Lanaren gaia xede etiko batekin eta gizarteentzat garrantzi soziala duten egoerekiko konpromisoarekin lotzea. Lanak sortutako ezagutzari esker, errazago izango da injustizia soziala, iraunkortasun falta eta ekitate faltako egoerak gainditzeko ekintzak gauzatzea.<br>Interesgarria da jakitea gaiaren aukeraketa ez dela neutrala. Jarrera ideologikoa/epistemologikoa agerian jartzea: errealitate soziala modu kritiko eta eraldatzailean aldatzen laguntzea. | Hausnartzeko galderak:<br>Gaia lan honen ikuspegitik jorratzeak aukera ematen al du gizartea eraldatzeko bideak aztertzeko?<br>Ikerketaren orientazioak ekarpenik egiten al dio errealitatea aldatzeko xedeari? Lan honetan sortzen den ezagutza esanguratsua al da gizarte-aldaketa horretarako?<br>Gaia lantzeak ba al du inpakturik pertsonetan eta naturan? Nolakoak? Gure gizarteetako arazo ekosozialei erantzuten die?<br>Sistema kapitalistari aurre egiteko beharrezkoa den kultura-aldaketari laguntzen al dio nolabait? |
| Helburuak, galderak eta/edo hipotesiak | Lanarekin lortu nahi diren helburuak, zer jorratu nahi den eta nora heldu nahi den. Era berean, ondoren azterketan berretsiko dugun edo ez dugun galdera garrantzitsuren bat, hipotesiren bat edo kasuren bat plantea dezakegu. Galderak egiteak frogatu nahi duguna zehazten eta egin beharreko bidea markatzen lagunduko digu.<br>Lanaren helburua arazo sozialei erantzuten dieten konponbideak bilatzearekin lotzea. Interesgarria izan daiteke lanak gai hauetakoren bat aztertu eta jorratzea: emakumeen eta gizonen arteko asimetriak (genero-ikuspegi feminista), kulturartekotasun kritikoaren ikuspegia, askotariko menderatze-sistemak (intersekzionalitatea)... | Hausnartzeko galderak:<br>Helburu horiei ekiteak aukera ematen du egoera sozialki garrantzitsuak aztertzeko?<br>Lanaren helburuek fenomenoen arteko mendekotasuna agerian jartzen duen azterketa zehazten dute?<br>Egindako galderak genero-ikuspegian, intersekzionalitatean eta kulturartekotasun kritikoan oinarritzen dira?<br>Lanaren helburuen artean ba al dago ezagutzaren sorrerari buruzko kritika deskolonialik?<br>Lanak laguntzen al du aztarna koloniala nola ahaztu pentsatzen?<br>Lanak sakontzen al du pentsamendu androzentrikoaren beharrezko dekonstrukzioan? |
| Metodologia | Metodologia jakin batzuk erabiltzeak aukera emango du mundua aztertu eta deskribatzeko, baina baita eraldatzeko ere. Metodologiak ere izaera politikoa du.<br>Erabilitako metodologiak:<br>- ahotsa eman behar die arazoan nahastuta dauden subjektuei;<br>- dibertsitatea errespetatu eta ahotsen aniztasuna onartu behar du;<br>- ikerketaren "subjektu/objektu" etena gainditu behar du (horizontaltasuna, hierarkia beharrean);<br>- malgua izan eta ikerlanean nahastutako subjektu eta mugimenduen identitate eta interesei egokituta egon behar du;<br>- kontuan hartu behar ditu alderdi kulturalak eta berorien ñabardura guztiak jaso behar ditu, eurozentrismoari eta arrazismoari aurre egiteaz gain (kulturarteko metodologiak).<br>Ikuspegi hori duten metodologia interesgarri batzuk:<br>- Partaidetzako ikerketa-ekintza.<br>- Epistemologia feministen esparruaren barruko ikerketa-metodologiak.<br>- *Jakintzen ekologia.* | Hausnartzeko galderak:<br>Zein interes daude ikerketa-lan honek planteatzen duen metodologiaren atzean?<br>Interesik izan al dezakete lanean metodologia feministek?<br>Nola saiatzen da ikerlana askotariko pentsamenduko eztabaidak ezartzen?<br>Nor dira lan honen subjektu kritikoak, historiaren eraldaketa sozialarekin konprometituta daudenak?<br>Zer ekintza, metodologia, erlazionatzeko modu eta abar garatzen ditu ikerlan honetan sartuta dauden kolektiboen benetako protagonismoa bermatzeko?<br>Zer neurri proposatzen ditu ikerlanean parte hartzen duten pertsonen/kolektiboen arteko botere- eta pribilegio-harremanak saihesteko? Nola garatu daiteke elkarrizketa horizontal hori?<br>Zer rol du dibertsitateak (kulturala, sexuala, generoari dagokiona...) lan honen prozesuan? Nola heldu behar zaio dibertsitateari? Zer aukera eta zailtasun aurreikusten dira?<br>Nola aurreikusi duzu ikerlan honen aurrerapenak komunikatu eta itzultzea?  |
| **Lanaren egitura eta garapena** | | |
| Kontzeptu- eta/edo teoria-esparrua  | Oinarrizko kontzeptuak, teoriak eta korronteen arteko eztabaidak.<br>Paradigma zientifiko nagusiak sortutako ezagutza legitimatzen duten premisa epistemologiko nagusiak argi eta garbi zalantzan jartzen dituen kontzeptu-esparrua erabiltzea. Kapitalismoa eta patriarkatua naturalizatzen duten sinesmenak berrikusteko aukera ematen duen kontzeptu-esparrua erabiltzea; halaber, aukera eman behar du sistema hegemonikoa eta berorren zapalkuntza-egiturak kritikatu eta eraldatuko dituzten aukerak aztertzeko. Ildo horretan, generoaren teoria eta oinarri feministen gainean eraikitako ezagutza funtsezkoak dira. | Hausnartzeko galderak:<br>Zer paradigma dago ikerketa-lan honek erabiltzen duen esparru teorikoaren atzean? (positibista, interpretaziokoa, kritikoa...).<br>Esparru teorikoak egiten al dio kritikarik mendebaldeko paradigma antropozentrikoari?<br>Lanaren oinarriko esparru teorikoak zenbait paradigma epistemologikotatik jasotzen ditu ekarpenak?<br>Lan honek garatzen duen esparru teorikoak agerian jartzen al du pentsamendu androzentriko eta eurozentrikoa deseraiki behar dela? Proposamenak barne hartzen al ditu epistemologia feministak? |
| Aurrekariak eta testuinguruaren azterketa | Hobeto ulertzeko baldintzak areagotu egiten dira testuingurua sakon eta zorrotz aztertzen bada; horretarako: ikuspegi konplexua izan behar da (feminista, kulturartekoa, intersekzionala...), baita globala eta elkarri lotua ere (iparralde-hegoalde logika tradizionala gaindituz, ikuspegi globalizatzailea izan behar da, loturak egiteko, elkarrekintzan ari diren askotariko faktoreetan arreta jarri eta errealitatea osatzen duten elementuen arteko mendekotasunak ikusteko, testuinguru aldakorrean arreta jartzeko...), botere-harremanak eta -dinamikak ulertu behar dira, etab. Testuingurua ikuspegi horietatik aztertzeak aukera ematen du azalpen partzial eta sinplistekin amaitzeko, eta arazoa harreman-esparru konplexuagoan ikusteko. | Hausnartzeko galderak:<br>Ikerketa-lanaren edukiak eta beroriek lantzeko moduak laguntzen al diote kapitalismoa desnaturalizatzeko prozesuari?<br>Lanak agerian jartzen al ditu botere-harremanak eta genero-desberdinkeriak?<br>Lan honek aztertzen al du nola genero-desberdinkeriez gain klaseari, etniari eta abarri buruzkoak dauden?<br>Nola islatzen du lanak dauden askotariko zapalkuntzen azterketa eta ulermena?  |
| Ondorioak | Lotura izan behar dute sarreran eta helburuetan planteatutakoarekin, galdera eta hipotesiekin eta gauzatutako azterketarekin.<br>Gomendioak/ondorioak diseinatzean, kontuan hartzea generoen arteko botere-desberdinkeriak eta askotariko zapalkuntzen sistema daudela. | Hausnartzeko galderak:<br>Lan honetako ikaskuntzek laguntzen al dute errealitatean gertatzen dena aztertzeko eta ulertzeko gaitasuna hobetzen, eta sortzen al ditu eraldaketarako ekintza-proposamenak?<br>Ikerketa honen emaitzek zer neurritan laguntzen dute errealitatea hobeto ulertzen eta eredu kapitalistari aurre egiteko ekintzak identifikatzen?<br>Zer ekarpen egiten dute lan honen ondorioek, ikuspegi ekosozialetik (interdependentzia eta ekodependentzia)?<br>Ikerketaren/lanaren ondorioek proposatzen al dute gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak eraldatzeko prozedurarik? |
| Bibliografia-iturriak | Lanerako erabili diren erreferentzia bibliografikoak eta dokumentuak (hala instituzionalak nola gizarte-erakunde eta -taldeenak).<br>Askotariko iturri eta erreferentziak erabiltzea, mundu osoaren ulermenera hurbiltzeko. Askotariko tokietan ekoitzitako dokumentuak, txostenak, artikuluak eta abar erabiltzea (iparraldeko eta hegoaldeko askotariko kulturetako egileak, talde menderatu edo baztertuek eginak, edo haien ikuspegiak eta interesak kontuan hartu dituztenak, emakumeek eta gizonek ekoitziak, ikuspegi feministatik...).<br>Arreta jartzea Donna Harawayk 1995ean sortu zuen "ezagutza kokatuaren" ideiari, epistemologia feministaren funtsezko ekarpenetako bat baita. Ezagutza kokatuaren arabera, subjektu modura osatzen gaituzten egoera sozialek gure ikuspegia eta sortzen dugun ezagutza baldintzatzen dute. Ikuspegi horren arabera, errealitatearen irudikapenak beti partzialak dira eta hala interpretatu behar dira. | Hausnartzeko galderak:<br>Nondik datoz lanean erabilitako iturri bibliografikoak? Nor da erreferentzia horien egilea? Emakumezko egileen erreferentziak sartu ditugu? Zer zentzu eta inplikazio ditu?<br>Badakizu lanean erabilitako erreferentzia bibliografikoak jarrera epistemiko jakin baten ondoriozkoak direla?<br>Ikerketa-lanak laguntzen al dio nolabait deskolonizazio epistemikoari?  |
| Eranskinak | Mapak, estatistika-taulak... | |

Iturria: Hegoako hezkuntza-taldea eta Marta Barandiaran Galdós (2019).



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
hegoa
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

# Para pensar trabajos de investigación socialmente comprometidos



| | | |
|---|---|---|
| **Título** | Adecuarlo al contenido del trabajo, aludir al problema que se estudia y/o posición que se defiende. Encontrar un título sugerente. | |
| **Índice detallado** | Reflejar la estructura del trabajo. | |
| | **Introducción** | |
| **Formular y acotar el tema** | Definir adecuadamente el tema, así como su marco cronológico y espacial. | |
| **Justificación del tema elegido**  | Explicar por qué se ha elegido el tema, por qué es relevante o pertinente estudiar ese tema actualmente (pueden incluirse motivos personales que hacen que se opte por ese tema y no por otro).<br>Vincular el tema del trabajo a una finalidad ética y de compromiso con situaciones percibidas como socialmente significativas para las sociedades. El conocimiento generado por el trabajo favorece posibilidades de acción para superar situaciones de injusticia social, insostenibilidad e inequidad.<br>Es interesante reconocer que la elección del tema no es neutral. Dejar constancia del posicionamiento ideológico/epistemológico: contribuir a modificar la realidad social de manera crítica y transformadora. | **Preguntas para la reflexión:**<br>- ¿Abordar el tema desde la perspectiva que lo plantea este trabajo posibilita explorar vías para la transformación social?<br>- ¿La orientación de la investigación aporta al propósito de cambiar y transformar la realidad? ¿El conocimiento que genera este trabajo es relevante para ese cambio social?<br>- ¿El tratamiento del tema tiene impactos sobre las personas y sobre la naturaleza? ¿De qué tipo? ¿Responde a problemáticas ecosociales de nuestras sociedades?<br>- ¿Contribuye de alguna manera a ese cambio cultural necesario para confrontar el sistema capitalista? |
| **Objetivos, preguntas y/o hipótesis** | Propósitos que se persiguen con el trabajo, qué es lo que se trata de abordar y a dónde se quiere llegar. Igualmente podemos plantear alguna pregunta relevante, hipótesis o supuestos que posteriormente pretendemos confirmar o no con el análisis. Establecer preguntas nos ayuda a definir lo que se quiere demostrar y marcar el camino a seguir.<br>Vincular el objetivo del trabajo a la búsqueda de soluciones que respondan a la problemática social. Es de interés que el trabajo persiga analizar y abordar las asimetrías entre mujeres y hombres (perspectiva de género feminista), la mirada de la interculturalidad crítica, los diversos sistemas de dominación (interseccionalidad). | **Preguntas para la reflexión:**<br>- ¿El abordaje de estos objetivos permite explorar situaciones socialmente significativas?<br>- ¿Concretan los objetivos del trabajo un análisis que dé cuenta de la interdependencia entre fenómenos?<br>- ¿Responden las preguntas planteadas a una perspectiva de género, interseccional, de interculturalidad crítica?<br>- ¿Entre los objetivos del trabajo está presente una crítica decolonial a la forma en que se ha constituido el conocimiento?<br>- ¿Contribuye el trabajo a pensar cómo desaprender la impronta colonial?<br>- ¿Profundiza el trabajo en la necesaria deconstrucción del pensamiento androcéntrico? |
| **Metodología** | El uso de determinadas metodologías va a permitir no sólo analizar el mundo y describirlo, sino también transformarlo. La cuestión metodológica también tiene carácter político.<br>Usar una metodología que:<br>- permita dar voz a las y los sujetos implicados en la problemática;<br>- respete la diversidad y que reconozca la multiplicidad de voces;<br>- supere la brecha "sujeto/objeto" de la investigación (horizontalidad frente a jerarquía);<br>- sea flexible y adaptada a las identidades e intereses de los diferentes sujetos y movimientos implicados en el trabajo/investigación;<br>- tenga en cuenta los aspectos culturales y recoja todos sus matices, al mismo tiempo que combata el eurocentrismo y el racismo (metodologías de carácter intercultural).<br>Algunas metodologías interesantes desde esta perspectiva:<br>- Investigación-Acción-Participativa.<br>- Metodologías de investigación inscritas en el marco de las epistemologías feministas.<br>- *Ecología de saberes.* | **Preguntas para la reflexión:**<br>- ¿A qué interés responde la metodología que plantea este trabajo de investigación?<br>- ¿Pueden aportar algún interés en el trabajo las metodologías feministas?<br>- ¿De qué manera la investigación/trabajo intenta establecer diálogos con pensamientos diversos?<br>- En este trabajo, ¿cuáles son las y los sujetos comprometidos con la transformación social de la historia?<br>- ¿Qué acciones, metodologías, forma de relación, etc. desarrolla para garantizar un protagonismo real de los colectivos implicados en este trabajo de investigación?<br>- ¿Qué medidas plantea para evitar posiciones de poder y privilegio entre personas/colectivos implicados en la investigación? ¿Cómo desarrollar ese diálogo horizontal?<br>- ¿Qué papel juega la diversidad (cultural, sexual, de género...) en el proceso de este trabajo? ¿Cómo abordar la diversidad? ¿Qué potencialidades y dificultades se prevén?<br>- ¿De qué manera está prevista comunicar y devolver los avances de este trabajo de investigación?  |
| | **Estructura y desarrollo del trabajo** | |
| **Marco conceptual y/o teórico**  | Conceptos básicos, teorías y debates entre diferentes corrientes.<br>Utilizar un marco conceptual que cuestione y desafíe abiertamente los principales presupuestos epistemológicos que legitiman el conocimiento construido por el paradigma científico dominante. Aplicar un marco conceptual que permita revisar las creencias que naturalizan el capitalismo y el patriarcado y que posibilite indagar alternativas con potencialidad crítica y transformadora del sistema hegemónico y de sus estructuras de opresión. La teoría de género y el conocimiento construido desde fundamentos feministas es crucial en este sentido. | **Preguntas para la reflexión:**<br>- ¿A qué paradigma responde el marco teórico que utiliza el trabajo de investigación? (positivista, interpretativo, crítico...).<br>- ¿Plantea el marco teórico alguna crítica al paradigma antropocéntrico y occidental?<br>- ¿El marco teórico que fundamenta el trabajo recoge aportes desde diferentes paradigmas epistemológicos?<br>- ¿El marco teórico que desarrolla este trabajo da cuenta de la necesaria deconstrucción del pensamiento androcéntrico y eurocéntrico? ¿Contempla la propuesta de las epistemologías feministas? |
| **Antecedentes y análisis de contexto** | Las condiciones para una mejor comprensión se amplían si se realiza un análisis sólido y riguroso de contexto, que implica atender a: una mirada compleja (feminista, intercultural, interseccional...), al carácter global e interrelacionado (superar la tradicional lógica norte-sur, enfoque globalizador que permite realizar conexiones, prestar atención a múltiples factores en interacción para apuntar interdependencias entre los diferentes elementos que forman la realidad, prestar atención al contexto cambiante...), comprender las relaciones y dinámicas de poder, etc. Analizar el contexto desde estas perspectivas posibilita romper con explicaciones parciales y simplistas y reconocer el problema en un marco de relaciones más complejas. | **Preguntas para la reflexión:** <br>- ¿Ayudan los contenidos del trabajo de investigación y la forma en que se abordan a un proceso de desnaturalización del capitalismo?<br>- ¿Visibiliza el trabajo las relaciones de poder y las desigualdades de género?<br>- ¿Analiza este trabajo cómo las desigualdades de género se suman a otras como la clase, la etnia...?<br>- ¿De qué manera refleja el trabajo un análisis y comprensión de las múltiples opresiones? |
| **Conclusiones** | Deben guardar relación con lo planteado en la introducción y con los objetivos, preguntas/hipótesis y con el análisis desarrollado.<br>Diseñar recomendaciones/conclusiones teniendo presente el análisis de las desigualdades de poder entre los géneros y desde un sistema de múltiples opresiones. | **Preguntas para la reflexión:**<br>- ¿Los aprendizajes de este trabajo contribuyen a aumentar la capacidad de análisis y comprensión de lo que acontece en la realidad y genera propuestas de acción para la transformación?<br>- ¿En qué medida los resultados de esta investigación contribuyen a comprender mejor la realidad y a identificar acciones que confronten el modelo capitalista?<br>- ¿Qué aportan las conclusiones de este trabajo desde una perspectiva ecosocial (interdependencia y ecodependencia)?<br>- ¿Proponen las conclusiones de la investigación/trabajo algún procedimiento para transformar las relaciones de poder entre hombres y mujeres? |
| **Fuentes bibliográficas** | Referencias bibliográficas y documentos que se han utilizado para el trabajo (tanto institucionales como de organizaciones y colectivos sociales).<br>Utilizar fuentes y referencias diversas que permitan acercarse a la comprensión del mundo en toda su complejidad. Utilizar documentos, informes, artículos, etc. cuyo lugar de producción sea diverso (autores/as de diferentes culturas "norte/sur", elaborados por grupos subalternizados, marginalizados o que hayan tenido en cuenta sus perspectivas e intereses, producidos por mujeres y hombres, desde un enfoque feminista).<br>Prestar atención a la cuestión del "conocimiento situado" que elabora Donna Haraway en 1995 y que es uno de los aportes fundamentales de la epistemología feminista. El conocimiento situado hace referencia a que las situaciones sociales que nos conforman como sujetos condicionan nuestra mirada y el conocimiento que producimos. Esta mirada desvela que las representaciones de la realidad son siempre parciales y así deben ser interpretadas. | **Preguntas para la reflexión:**<br>- ¿De dónde provienen las fuentes bibliográficas utilizadas en el trabajo? ¿De quién es la autoría de estas referencias? ¿Hemos incluido referencias de autoras? ¿Qué sentido e implicaciones tiene?<br>- ¿Hay consciencia de que las referencias bibliográficas que utiliza el trabajo responden a una determinada postura epistémica?<br>- ¿Contribuye de alguna manera el trabajo de investigación a la descolonización epistémica?  |
| **Anexos** | Mapas, tablas de estadísticas... | |

Fuente: Amaia del Río Martínez, Gema Celorio Díaz y Marta Barandiaran Galdós (2019).



Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea
hegoa — Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional · Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua